



**ELKARTASUNA
ERAIKI**

PROPOSAMEN SAMARITARRA

XEDEA

Caritasek egiteko bikoitzari erantzuten dio: alde batetik, pertsoneri laguntzeko, haien ongizaterako, autonomiarako eta ahaldunderako laguntzak eskaini, eta, bestetik, bidegabeko eta axolagabekeria sozialeko egoerak eraldatzeko, sentsibilizazioa bezalako lanabesak erabiltzea.

Caritasentzat erronka da baliozko leku bat izatea eta bertatik gizarte bat eraikitzea, elkartasunean eta parte-hartzean oinarrituko dena. Gizarte berria gure ekintzak bideratzen dituzten printzipioak kontuan izanda eraiki nahi da:

**duintasuna eta justizia,
zaintza eta giza
eskubideak, errukia
eta senidetasuna.**

Ikasgelan elkartasuna eta justizia bezalako balioetan oinarritutako hezkuntza indartu ahal izateko, estrategia bat eraiki nahi dugu jarduera erakargarri eta koherenteen katalogo pedagogiko bat garatuz.

**Elkartasuna
eta justizia**



SENTSIBILIZAZIOAREN HELBURUAK ETA TESTUINGURUA

Caritasen zeregina
sentsibilizatzea eta balioetan
heztea da, eta hori garatzeko
**elkartasuna sustatzen
du bizitzeko modu gisa**



Elkartasun hori, Caritasentzat gizaki ororekin eta kontzientzia ekologiko sendo batekin lotuta egotea da. Hau guztia, gizakiei proposatu ahal eta behar zaie, sinesmenak direnak direlarik ere.

Gizartea eraldatzeko beharrezkoa da gizaki ororen kontzientzian eragitea, jarrera eta ohitura aldaketa bat, eta, lortzeko, guztion ongizate unibertsala lortzeko. Horrela, munduan pobreziarik ez izatea lehentasun bihurtuko da, besteak beste.

Sentsibilizazioak heziketa-prozesu pedagogiko argia eta zehatza izan behar du, material hau zuzentzen diegun pertsonen errealitateari eta beharrei egokitua.

Caritasek beti proposatu izan du esperientzian oinarritutako formakuntza, askatzailea eta eraldatzailea. Formakuntza honen helburu nagusia pertsona askeak eta autonomoak egitea da, norbere prozesuaren protagonistak (...), euren inguruko errealitatea aztertzeko gai, bertan parte hartzen eta hura eraldatzen. Helduleku gisa pertsonarengan sinesten duen prestakuntza, errealitatea eldatzeko eskuhartzeko gai dena”.

PEDAGOGIA SAMARIARRAREN TESTUINGURUA


Esparru pedagogiko hau Samariar Onaren parabolaren oinarrituta dago; parabola sinple, baina adierazgarri eta interpelatzaile honen sei etapa edo aditz nagusietatik.

Honako koadroak mapa osoa ikusten laguntzen digu bere etapa, elementu pedagogiko eta sinbolo nagusiekin.

SAMARIAR ONAREN ETAPAK	ZER HEZI HEMEN?	GEE* PROZESUA	GEE* ERREFERENTZIAK	MAILA HASIBERRIA	ADITU-MAILA
1. Ikusi egin zuen	BEGIRADA	AGERIAN JARRI	Errealitatea AGERKUNDE gisa	Premietan oinarritutako ikuspegia	Gaitasunetan oinarritutako ikuspegia
2. Errukia sentitu zuen	BIHOTZA		Maitasuna MOTOR gisa	Sentimendu erreaktiboa	Sentimendu prosoziala
3. Hurbildu egin zen	ELKARTZEA	HARAGITU	Pertsona ERDIGUNE gisa	Errespetuzko tolerantzia	Aniztasun inklusiboa
4. Zauriak sendatu zizkion	TREBETASUNAK		Maitasuna ZEINU gisa	Erreparazio soziala	Zaintzaren kultura
5. Berekin eraman zuen	KONPROMISOA	PROPOSATU	BIDALIAK sentitzea	Zerbitzu-bokazioa	Herritartasun globala
6. Ostatura eraman zuen	KOMUNITATEA		Esperientzia KOMUNITARIOA	Elkartasun antolatua	Justizia Unibertsala

* (Gizarte-ekintza Eredua)

GIZATERIAREN ALTXORRAREN MAPA



SEi AZTARNA /
SEi ETAPA

SEi AZTARNA / SEi ETAPA

1

**FILTROA
KENDU**



Prozesu
pedagogikoa

**BEGIRADA
HEZI**

2

**HUNKITU
ZAITEZ**



Prozesu
pedagogikoa

**BIHOTZA
HEZI**

3

**KALERA
ATERA**



Prozesu
pedagogikoa

**ELKARTZEA
HEZI**

4

GAI ZARA



Prozesu
pedagogikoa

**TREBETASUNAK
HEZI**

5

BAZATOK?



Prozesu
pedagogikoa

**KONPROMISOA
HEZI**

6

**HANDITU ZURE
KUADRILLA**



Prozesu
pedagogikoa

**KOMUNITATEA
HEZI**

JARDUERA

JARDUERA


Samariar onaren ibilbidean proposatu ditugun 6 etapa bakoitzeko bi dinamika proposatzen ditugu: guztira 12 talde-dinamika.

Parte hartzaileen adin tarte handian landu daitezke guztiak (lehen hezkuntzatik hasi eta helduen hezkuntzara arte).

*** EZKERREKO
MENUAREN
BIDEZ JARDUERA
EZBERDINETARA
SAR ZAITEZKE.**



1 FILTROA KENDU

PROZESU
PEDAGOGIKOA:
**BEGIRADA
HEZI**

Premietan oinarritutako ikuspegitik gaitasunetan oinarritutako ikuspegian hezte.

JARDUERA

FILTROA KENDU

Ikusteak adi egotea ere esan nahi du gaur egun, eta betaurreko egokiekin begiratzen jakitea. Arretarik ezaren garai honetan, funtsezko helburu pedagogikoa da besteei arreta ematea, norbere burbuilatik edo norberaren beharretatik haratago. Helburu pedagogikoa da, halaber, errealitatea formaz haratago irakurtzen jakitea, mamira joatea eta gizarte-arazoen kausak eta ondorioak aztertzea.

IKASKUNTZA-HELBUURAK

- Giza arazoak eta premiak identifikatzea tokiko ingurunean bertan, eta baita maila globalean ere, arreta haiengana bideratuz eta bi esparruen arteko erlazioa aztertuz.
- Gizartearen premien eta arazoen irakurketa eta azterketa kritikoa egitea, ikusezina eta ezkutukoa agerian utzita eta haren egiturazko arrazoiak agerian jarrita.
- Errealitateari modu kritikoan begiratzen ikastea, pertsonen giza eskubide eta gaitasun ukatuak eta blokeatuak kontuan hartuta, pertsona batek duintasunez izateko eta bizitzeko behar dituen horiek, hain zuzen ere.
- Pertsona eta komunitate kalteberen eta problematizatuen indarguneak eta hobetzeko aukerak aurkitzea eta sustatzea, indargune horietatik bideratuz ekintza soziala eta prosoziala.



IKASKUNTZA- HELBURUAK

Pertsona eta komunitate kalteberen eta problematizatuen indarguneak eta hobetzeko aukerak aurkitzea eta sustatzea, indargune horietatik bideratuz ekintza soziala eta prosoziala.

Parte-hartzaileen adin-tartea

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

Irakasle batzuek bigarren hezkuntzan ere landu dute.



Mundua polit ikusteko betaurrekoak

Mundua polit ikusteko betaurrekoak

SARRERA:

Mundua polit ikusteko betaurrekoak diseinatuko ditugu. Gertatzen denaren errealitatea ukatu gabe, arazo edo egoera zail bakoitzaren atzean ezkutatzen den gauza positibo hori bilatzen lagunduko diguten betaurrekoak. Horrela, gutxiago sufrituko dugu eta irtenbide eta motibazio gehiago aurkituko ditugu adorea hartzeko.

DINAMIKA:

Erabiltzen ez ditugun betaurreko batzuen armazoiak behar dugu, kristalik ez duena, edo kristalik gabeko plastikozko betaurreko batzuk, bazarretan erosten diren horietakoak jaietarako eta emanaldietarako. Hainbat materialekin, hala nola zintekin, koloretako sokekin, plastilinarekin, pinturarekin eta abarrekin apainduko ditugu betaurreko berezi horiek, oso politak izan daitezen, betaurreko polit batzuekin bakarrik ikusiko baitugu mundua polit, ezta?

Eta betaurreko horiek, hain dira bereziak, ezen erabiltzen ikasi behar baita, eta, gainera, beste pertsona batzuekin parteka ditzakegunez, gauza on guztiak bezala, guztion artean edo lantaldeetan banatuta egingo dugu betaurrekoen jarraibideen eskuliburua, hau da, janzten dituzunean, adibidez, honako konpromiso hauek bete behar dituzu:

- Besteen eta zeure buruaren alderdi positiboak erreparatu behar diezu.
- Beti pentsatu behar duzu besterik gabe denbora pasatzeko baino zerbait gehiagorako gaudela mundu honetan, bizitzan badugula misio bat, eta mundua hobe eta politago egin dezakegula.
- Eta bururatuko zaizkizun beste gauza polit asko ..

ETA AMAITZEKO...

Dinamika edo ariketa amaitzeko, Mundua polit ikusteko betaurrekoen jarraibideen eskuliburua adostu ondoren, eta gure fedetik gogoeta egin ondoren, izen bereko abestia entzun dezakegu denok batera, eta abestia ikasi, edo koreografiaren bat ere egin dezakegu: sormenak ez du mugarik! Eta amaitzeko: argazki bat partekatuko al diguzu mundu politeko zure betaurrekoekin? Mundu politeko zure betaurrekoak sare sozialetan partekatzera animatzen zaitugu **#GafasDelMundoBonito** hastagarekin.

FILTROA KENDU

FILTROA KENDU

IKASKUNTZA-
HELBURUAK

Errealitateari modu kritikoan begiratzen ikastea, pertsonen giza eskubide eta gaitasun ukatuak eta blokeatuak kontuan hartuta, pertsona batek duintasunez izateko eta bizitzeko behar dituen horiek, hain zuzen ere.

Parte-hartzaileen adin-tartea

DBHKO BIGARREN ZIKLOA, BATXILERGOA ETA HELDUEN HEZKUNTZA



Justizia sozialaren betaurrekoak

DINAMIKA:

Justiziaren betaurrekoak sortzea da dinamika. Betaurreko horiekin, ezkerreko kristaletik, duintasun eta eskubide berdineko pertsona gisa ikusten da bestea, eta eskuineko kristaletik, berriz, ditugun desberdintasunak, gure beharren eta gaitasunen aniztasuna baloratzen da. Ideia hori hasierako ariketa gisa planteatu daiteke, lantaldeetan, bi galdera eginez:

1. Zertan gara berdinak pertsonak?

2. Zertan gara desberdinak?

Jaso eta bien zerrenda egingo dugu arbelean edo panelean.

Bigarren miaketa batean, **Giza Eskubideen Gutuna** jarriko dugu mahai gainean edo eztabaidan, eta, esate baterako, hark beste lege eta arau batzuetan duen isla, hala nola gure herriaren eraketan. Eta orain **eskubideen berdintasunaz** hitz egiten dugu, bai eta horiek **eskuratzeko berdintasunaz** ere, haien bermeez eta sustapenez gain. Hausnarketa hori **2030 Agendako Garapen Jasangarrirako** helburuekin eta UNICEFeko Haurren Eskubideen Gutunarekin lotu dezakegu.

Plastikoki diseina ditzakegu, taldeka, hainbat gizarte-kolektibori aplikatutako **Justiziaren betaurrekoak**: Nola ikusten ditugu Justiziaren betaurrekoekin (berdintasuna & diferentzia) ondoko kolektibo hauek gaur egungo gure gizartean (tokikoa eta/edo globala)?

- Gazteak
- Adinekoak
- Emakumea
- Landa-eremua
- Errefuxiatuak eta gerraren ondorioz desplazatuak (gaur egun ukrainarrez hitz egin dezakegu)

ETA AMAITZEKO...

Dinamika amaitzeko, eta betaurreko guztietatik ikasi dugunarekin, era generikoan diseina ditzakegu **Justiziaren betaurrekoak**. Betaurreko horiek, sinbolikoki, denok jarri beharko genituzke aurrerantzean besteei begiratzeko, eta, hala, gizartearen eta, bereziki, pertsonen ikuspegi bidezkoagoa izango dugu.

2 HUNKITU ZAITEZ**PROZESU
PEDAGOGIKOA:
BIHOTZA
HEZI**

Sentimendu
erreaktibotik
sentimendu
prosozialera
pasatzea.

JARDUERA

HUNKITU ZAITEZ

Latinezko “cum passio” hitzetik dator erruki hitza, eta “grina izatea” esan nahi du, egiten den horretan bihotza jartzea, bestearekin sufritzea, haren lekuan jartzea. Halaber, grinak behar bezala kudeatzen eta bideratzen jakitea esan nahi du, bestearen duintasun ezak sumina eragitea eta ekintzara eramatea.

IKASKUNTZA-HELBUURAK

- Besteen lekuan jartzen ikastea, batez ere sufritzen dutenen eta gabeziak dituztenen lekuan, haien errealitatetik pentsatuz, giza sentsibiltatea suspertuz, eta afektuzko, samurtasunezko, errukizko, atsekabezko eta/edo sumindurazko sentimenduak sentituz.
- Besteen egoera bidegabe eta mingarriek eragindako atsekabe pertsonala eta/edo sumindura behar bezala kudeatzea, eta norberaren erantzuna ikuspegi prosozial eta proaktibotik bideratzea.
- Hainbat behar eta arazo pairatzen dituzten pertsonen egoera bidegabe eta mingarriek eragiten dizkiguten sentimenduak eta emozioak askatasunez, gizatasunez, sormenez eta errespetuz adieraztea.
- Besteekiko laguntzan enpatia behar bezala erregulatzen ikastea, besteekin emozionalki lotzen jakinez, baina baita elkarrengandik aldentzen ere, mendekotasun emozionala saihesteko eta norberaren sentimenduak eta pentsamenduak behar bezala kudeatzeko.

HUNKITU ZAITEZ

IKASKUNTZA-
HELBURUAK

Besteen lekuan jartzen ikastea, batez ere sufritzen dutenen eta gabeziak dituztenen lekuan, haien errealitatetik pentsatuz, giza sentsibitatea suspertuz, eta afektuzko, samurtasunezko, errukizko, atsekabezko eta/edo sumindurazko sentimenduak sentituz.

Parte-hartzaileen adin-tartea

LEHEN HEZKUNTZATIK
AURRERA

Zapata bidaiariak

SARRERA:

Enpatia “bestearen zapatetan jartzea” dela esan ohi da. Izan ere, gai horretan bada behin eta berriz errepikatzen den esaldi bat, honela dioena: “Pertsona bat epaitu aurretik, saia zaitez haren zapatak jantzi eta kilometro bat oinez ibiltzen”. Esaldi horrek bestearen lekuan jartzera garamatza berehala, hau da, haren bizitzaren eta haren izatearen inguruabarretan eta koordinatuetan, haren errealitatearen mapan jartzera.

DINAMIKA:

Parte-hartzaile bakoitzak berarentzako berezia den oinetako bat ekarriko du ikasgelara edo bilerara: izan daiteke zapatila, bota, sandalia, etab. Komeni da esatea oinetako erabilia izan behar duela, dezente erabilia, ibilbide eta abentura askokoa, ez oinetako berria edo oso gutxitan jantzia.

Iritsi ahala, poltsa handi batean sartuko ditugu oinetako guztiak, bakoitzak zein ekarri duen ikusi gabe. Une jakin batean, bideratzaileak edo animatzaileak agerian jarriko ditu oinetako guztiak lurrean, eta parte-hartzaile bakoitzari esango dio erreparatzeko bereziki arreta pizten dion bati, baina ez dadila berea izan, hiru galdera pentsatzeko oinetako horri egiteko, berari buruz jakin nahiko lituzkeen gauzei buruz.

Bakoitzaren galderak ohar itsaskorretan (pos-it) idatziko dira, eta oinetakoan itsatsiko dira. Honelako galderak izan daitezke: non egon zara?, zein lekutan ibili zara?, zein esperientzia zail izan dituzu?, zein pertsona on ezagutu dituzu?, noiz egin behar izan duzu korrika?, etab. Galderak oinetakoari egingo zaizkio, bizitza propioa izango balu bezala.

Oinetako guztiek beren galderak dituztenean, orduan bai, jabe bakoitzak bere oinetakoa hartu eta oinetako horrek dituen galderei erantzungo die, eta, horrela partekatuko ditugu gure bizi-ibilbideak, gure bizitza bidean.

ETA AMAITZEKO...

Dinamika amaitzeko, nire **“Camino con tus zapatos”** (Zure zapatekin egiten dut bidea) abestiaren letra entzun eta lantzea proposatzen dugu.

HUNKITU ZAITEZ



IKASKUNTZA- HELBURUAK

**Hainbat behar eta arazo
pairatzen dituzten
pertsonek egoera
bidegabe eta mingarriek
eragiten dizkiguten
sentimenduak eta
emozioak askatasunez,
gizatasunez, sormenez eta
errespetuz adieraztea.**

Parte-hartzaileen adin-tartea

DBHKO BIGARREN ZIKLOTIK AURRERA



Bihotz etxekotua

SARRERA:

Ondo dakigu txoritxoaren leku naturala ez dela kaiola, natura baizik, bere ekosistema propioa. Txori etxekotuak uko egiten dio hegan egiteari, uko egiten dio bere funtzio naturalari kaiola baten barruan bizi delako, behar duen janaria ematen dion kaiola. Baina laster bere funtzioetako batzuk atrofiatu egiten dira eta zentzua galtzen dute, eta azkenean ez du betetzen sortzetik duen helburu edo misio natural hori.

Ariketa dinamiko horren bidez, hobeto jabetuko gara errealitate horretaz, gure etxekotze emozionalaren mailaz.

DINAMIKA:

Txori-kaiola batekin agertuko gara ikasgelan, eta bihotz gorri bat sartuko dugu bertan (adibidez, kartoi mehean moztua), ondo ikusten dena. Parte-hartzaileei kontatuko diegu batzuetan gure sentimenduak etxekotuta daudela, preso daudela, eta ez dutela beren funtzioa ondo betetzen, atrofiatu ere egin daitezkeela, eta abar.

Jarraian, esaldi osatugabe batzuk planteatuko ditugu, sentimenduen hiru funtzioekin (jada azalduak daude haiek) lotuak, parte-hartzaileak bultzatzeko ekarpenak eta adibideak egin ditzaten. Horiek ohar itsaskorretan idatz ditzakete, eta kaiolaren ondoan jarri. Nik ondoko hauek iradokitzen ditut, baina gehiago zehaztu edo gehiago egin ditzakegu:

- Zaila egiten zait besteei edo besteekiko zer sentitzen dudan benetan adieraztea, noiz/zergatik...
- Nahiago dut distantzia mantendu, eta egoera batzuetan afektiboki ez sartu, noiz/zergatik...
- Erosoagoa eta seguruagoa da pertsona arrazionala izatea emozionala izatea baino, noiz/zergatik...
- Zaila egiten zait desberdintzea ona eta txarra, zuzena eta ez-zuzena, egoera jakin batzuetan...
- Nahiago dut ezeren alde ez jarri edo nire irizpide etiko edo moralara argi eta garbi ez erakutsi, noiz...

Parte-hartzaileek emandako idatzizko material guztiarekin, eta, oro har, inorengan pertsonalizatu gabe, gure emozioen etxekotzea adierazten duten "beldurrak eta izuak" aztertuko ditugu.

ETA AMAITZEKO...

Eta galdera bat amaitzeko, eta "notarako": Zer lotura dago bihotz etxekotuaren metaforan konbertsio pertsonalaren prozesuekiko?



PROCESO
PEDAGÓGICO:
**EDUCAR
EL ENCUENTRO**

Giza elkartzea
heztea, errespetuzko
tolerantziatik
aniztasun inklusibora.

JARDUERA

KALERA ATERA

Fisikoki ez ezik, forma eta hizkuntzetan ere hurbildu, baita oztopo soziokulturalak hautsita ere, ez baitugu ahaztu behar Samariar onak judu bati lagundu ziola eta garai hartan juduek eta samariarrek ez zutela elkarren artean harremanik, juduek lohitzat jotzen baitzituzten samariarrak.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Ekimena eta erabakia bultzatzea, beste kalteberengana eta behartsuengana hurbiltzeko, erosotasun-eremuei eta, oro har, hori eragozten duten ingurune soziokulturaleko oztopoei aurre eginez.
- Elkarriketarako, hurbiltzeko eta lankidetzarako guneak sustatzea hainbat pertsona eta kolektiborekin, kalteberekin edo baztertuekin, pertsonen arteko harremanaren bidea errazteko eta/edo laguntzeko, berdintasuna, errespetua eta anaitasuna oinarri hartuta.
- Norberaren nortasun soziokulturalaz jabetzea, bai eta herriartasun globalaz ere, ikuspegi kosmopolita eta anaitasunezko, identitateen identitate gisa ere identifikatzen gaituena, aberri-lurralde berean bizi den gizateria gisa.
- Egungo aniztasunari buruz hausnartzea, hainbat dimentsio soziokultural eta biologikotan, giza duintasunetik eta autodeterminaziotik abiatuta, interdependentzia eta inklusibitate soziokulturala sustatuz, benetako anaitasun unibertsalaren oinarri gisa.

KALERA ATERA

**IKASKUNTZA-
HELBURUAK**

Egungo aniztasunari buruz hausnartzea, hainbat dimentsio soziokultural eta biologikotan, giza duintasunetik eta autodeterminaziotik abiatuta, interdependentzia eta inklusibitate soziokulturala sustatuz, benetako anaitasun unibertsalaren oinarri gisa.

Denok barne eskumuturrekoa

Parte-hartzaileen adin-tartea

**LEHEN HEZKUNTZATIK
AURRERA****Denok barne eskumuturrekoa****SARRERA:**

Metafora honek pluralean jartzen du resort delakoetako dena barne eskumuturreko ezaguna, non kontsumo neurrigabea eta indibidualista sustatzen den. Aldiz, pluralean jartzean erabat aldatzen da kontzeptua: dena barne indibidualista horretatik, denok barne kolektibistara pasatzen gara, eta horrek partekatzea, guztiok barne hartzea gonbidatzen gaitu, bai eta kontsumo solidarioagoa eta iraunkorragoa bilatzera ere.


DINAMIKA:

Pertsona inklusiboa izateko eskumuturrekoaren jarraibide eskuliburua diseinatuko dugu, hau da, eskumuturrekoari eman dizkiogun balio eta ekintza-printzipio horien arabera jokatzeko konpromisoa hartu behar du eskumuturrekoa jartzen duen pertsonak.

Baina, gaur egun zer da modu inklusiboan jardutea? Taldeka bilduta bakoitzak bere jarraibideen eskuliburua proposatuko du eta azkenean, eskuliburu partekatua adostuko dugu, aurrerantzean gure bizitzara eramateko, esaterako:

- Entzun pertsonei, hartu denbora haiek ezagutzeko.
- Lotura gisa jardun pertsona batzuk besteekin harremanetan jartzeko.
- Jarri arreta bereziki bakarrik dauden edo harreman sozialerako zailtasun handienak dituzten pertsonengan.
- Jarri arreta handiagoa elkartzen gaituzten gauzetan bereizten gaituzten gauzetan baino, eta hortik sor itzazu loturak eta elkarriketak.
- Saiatu elkarrengandik bereizten gaituen hori osatzen.
- Saihestu pertsonei buruzko aurreiritziak (aurretiko iritziak), aldeztu aurretik eta automatikoki.
- Gonbidatu beste pertsona batzuk besteekin inklusiboak eta solidarioak izatera.
- Defendatu hitzez eta diskurtso arrazoituarekin pertsona kalteberenak eta egoera sozialetatik baztertuenak, nahiz eta presente ez egon.
- Sala itzazu klase, marka edo bizitza-filosofia jakin batekoak ez direnak baztertzen eta kanpoan uzten dituzten jarrerak eta praktikak.

KALERA ATERA



IKASKUNTZA- HELBURUAK

Elkarrizketarako, hurbiltzeko eta lankidetzarako guneak sustatzea hainbat pertsona eta kolektiborekin, kalteberekkin edo baztertuekin, pertsonen arteko harremanaren bidea errazteko eta/edo laguntzeko, berdintasuna, errespetua eta anaitasuna oinarri hartuta.

Parte-hartzaileen adin-tartea

LEHEN HEZKUNTZATIK AURRERA



Bizitza partekatzeke eguneroko objektuak

INTRODUCCIÓN:

Bestearekin elkartuko gara, desberdinarekin eta beste kultura edo herrialde batekoarekin, gure bizitza harekin partekatzen dugunean, ez bakarrik gure gauzak, lekuak edo espazioak. Eta bizitza partekatzen dugunean, hori baita garrantzitsuena, ohartuko gara uste genuena baino antzekoagoak garela, denok garela gizaki eta antzeko gauzak nahi ditugula.

Objektu ezagun batzuen bidez, sinbolo edo metafora gisa Bizitzaren Zentzuarekin oso lotuta daudenak, elkarrizketa sakon eta zintzoa sor dezakegu axola zaizkigun gauza horiei buruz. Objektu bakoitzari galdera sorta bat jarri diot, baina ez dira galdera itxiak, bakoitzak galdera gehiago egin baititzake. Bizitzak zentzua du galderak bizirik daudenean, egunero erantzunak ematen dizkigutelako.

1. Iratzargailua. Denbora zertan erabili bizi-dimentsio garrantzitsu gisa.

2. Bidaia-motxila. Motxila batean ez da dena sartzen, benetan beharrezkoa eta ezinbestekoa dena aukeratzen jakitea, gauza askori ez atxikitzea, ekipaje arin joatea.

3. Argazki-kamera. Barruan grabatutako irudiz eta oroitzapenez betea dago bizitza. Badira oroitzapen onak eta badira oroitzapen ez hain onak: garrantzitsua da barkatzen ikastea, irudi mingarrietatik onartzen eta askatzen ikastea.

4. Oparien kaxa. Bizitza opari bat da, eta, horregatik, ona da bizitza hori eman digutenei eskerrak ematea. Bizitza oparitzea da, eta hori egiteko modu asko daude: denbora, alaitasuna, lagunartea, adiskidetasuna.


Dinamika:

Lau objektuak agerian jarriko ditugu erdian, eta bakoitzak, dagokion txandan edo zirkuluan, objektu bat aukeratuko du, eta pertsona batek (bideratzaileak) galderak egingo ditu galdera-zerrendatik, guztiak edo denbora ematen digutenak egin arte. Galdera horiei gehiago gehitu diezazkiekegu, edo, are gehiago, parte-hartzaileak anima ditzakegu objektuetatik besteei galderak egitera.

ETA AMAITZEKO...

Dinamika errepikatu dezakegu lagunekin edo familiarekin, gure taldean edo komunitatean, gure ikasleekin, eta psikoterapiako profesional batentzat ere lagungarria izan daiteke.

Bizitza partekatzeke eguneroko objektuak



PROZESU
PEDAGOGIKOA:
**TREBETASUNAK
HEZI**

Trebetasunak
heztea, erreparazio
sozialetik zaintzaren
kulturara.

4 **6Ai ZARA**


JARDUERA

6Ai ZARA

Ongia ondo egitea da kontua, laguntzan trebeak izatea, laguntzeko oinarritzko tresnak ikastea. Samariar onaren erreminta-kutxa ez da une jakin batzuetan laguntzen eta arintzen duena bakarrik, baizik eta zaintzaren kultura eraikitzen duena ahulenentzat eta babesik gabekoentzat, eta, oro har, komunitate osorako eta bizimodu ororako.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Entzute humanistaren artea ikastea eta praktikatzea funtsezko tresna gisa eta medikuntza psiko-sozial gisa, besteari transmititzeko axola zaigula, bere irizpidea kontuan hartzen dugula eta bere errealitateaz jabetzen garela.
- Beste kalteberekkin eta behartsuekin errespetuz, positiboki eta eraginkortasunez komunikatzen ikastea, ematen dugun informazioa laguntza- eta lankidetzat tresna gisa erabiliz haien arazoak eta gabeziak konpontzeko.
- Laguntza-harremanari eta premia-egoera zehatzei lotutako gaitasunak eta trebetasunak garatzea eta entrenatzea, ongia ondo egiteko eta pertsonen eta komunitateen laguntza benetan eraginkorra eta eraldatzailea eskaintzeko.
- Zaintzen oinarritzko gaitasunak identifikatzea eta praktikatzea, bai maila pertsonalean (norbere burua zaintzea), bai pertsonen artean eta gizartean (elkar zaintzea), eta zaintzaren kultura humanoaren, sozialaren, kulturalaren eta ekologikoaren enbaxadore izatea gure ingurunean.

6*Ai* ZARA**IKASKUNTZA-
HELBURUAK**

Zaintzen oinarritzko gaitasunak identifikatzea eta praktikatzea, bai maila pertsonalean (norbere burua zaintzea), bai pertsonen artean eta gizartean (elkar zaintzea), eta zaintzaren kultura humanoaren, sozialaren, kulturalaren eta ekologikoaren enbaxadore izatea gure ingurunean.

Parte-hartzaileen adin-tartea

**LEHEN HEZKUNTZATIK
AURRERA****Zaintzaren eskuak****SARRERA:**

Samariar onak sendatzeko eta zaintzeko gaitasuna erakutsi zuen, parabolak kontatzen baitigu zauriak olio ez den ardoz sendatu eta bendatu egin zizkiola. Izan ere, pertsona iaioa eta trebea zen zaintzeko, eta bere eskuekin egin zuen dena, bai bestea bere gainean jarri ere.

Bizi garen garai hauetan, zaintzaren ekintzak eta lanbideak lehen mailara pasatu dira gizartean, eta inoiz ikusi ez den balorazioa eta estimua dute. Bat-batean etorri zen pandemiak hankaz gora jarri zuen dena, txalotu eta balioa eman zien zaintzako eta bizi-euskarriko oinarritzko zerbitzuetako profesionali.

DINAMIKA:

Hauxe galdetuko diegu haurrei: gogoan al duzue zuen gurasoek eskutik helduta eramaten zintuzteten garaia? Gogoratzen al duzue zuen gurasoek eskutik heltzen zizuetenean kalea zeharkatzeko, iristen ez zineten tokira igotzeko, komunean, igerilekuan... sartu eta ateratzeko? Nola sentitzen zineten? Eta inoiz askatzen bazintzuten bakarrik ikasten joateko, zer sentsazio zenuten?

Aurreko hausnarketa eta elkarriketa labur horren ondoren, gure esku irekiaren silueta marraztuko dugu denok paperean, boligrafoz edo arkatzez inguratuz.

Hori egindakoan, honako esaldi hau idatziko dugu silueta egin diogun esku ahurraren erdian: "(gure izena jarri) ...ren eskua beharrezkoa da ... zaintzeko" Eta, gero, esku horretako 5 hatzetako bakoitzean, pertsona edo izaki bizidun baten izena jarriko dugu, guk zaindu behar duguna hobeto eta babestuago egoteko. Adibideak: ama, aita, arreba/ahizpa, laguna, lurra, nire maskota, nire landareak, etab.

Ondoren, parte-hartzaile bakoitzak bere zaintza-eskua erakutsiko die besteei, eta zaintzen dituen 5 pertsona edo izaki bizidun horiei azalduko die. Esku guztiak gure izenez eta zaindu ditzakegun eta zaindu behar ditugun izakiez beteta, horma-irudi handi bat edo aurkezpen birtual bat egin dezakegu, "Zaintzaren gure eskuak" izenekoa.

ETA AMAITZEKO...

Eta, amaitzeko, hona hemen galdera batzuk, norberaren eta besteen eskuetatik zaintzaren etika gure bizitzan txertatzen lagun diezaguten: zenbateraino jabetzen gara zer eraiki, prebenitu eta zaindu dezakegun gure eskuekin? Zer balio ematen diegu zuzenean beren eskuekin lan egiten duten pertsonari eta profesionalari, besteak zaintzen aritzen direnei, garbitzen, zerbitzatzen, gauzak konpontzen, eraikitzen, sortzen dituztenei? Zer da garrantzitsuagoa, eskuak gauzak beteta edukitzea edo zaindu eta maitatu ditugun pertsonen izenez beteta edukitzea? Bateragarriak al dira biak?

6AI ZARA



IKASKUNTZA- HELBURUAK

Laguntza-harremanari eta premia-egoera zehatzei lotutako gaitasunak eta trebetasunak garatzea eta entrenatzea, ongia ondo egiteko eta pertsoneri eta komunitateei laguntza benetan eraginkorra eta eraldatzailea eskaintzeko.

Parte-hartzaileen adin-tartea

LEHEN HEZKUNTZATIK AURRERA



Mainen manta

SARRERA:

Gogoan al dugu hotzak gaudenean norbaitek manta batez estaltzen gaitueneko sentsazioa? Jende askok pasatzen ditu hotza eta zorigaiztoak, eta oso kontsolagarria da manta batez hartzeko, mantaz estaltzeko eta gure maitasuna eta laguntza transmititzeko keinu hori.

DINAMIKA:

Manta bat eramango dugu ikasgelara. Besteei egiten diegun harrera adieraziko du manta horrek, batez ere gure laguntza behar dutenei, haien errealitatea hotza eta korapilatsua denean. Bi momentutan egingo dugu mantaren ariketa:

- 1. Enpatia-ariketa eginez**, hau da, besteen lekuan jarrita, eta gogoratuz noiz izan genuen azken aldiz manta batez hartu eta berotuak izateko esperientzia.
- 2. Besteentzat manta-pertsonak izaten ahaleginduz**, abegikorrek eta beroak izanik, gehien behar dutenei, hotz eta bakardade soziala sentitzen dutenei, entzuteko eta laguntzeko prest egonik..

Horrela, manta banan-banan pasatzen joango gara, eta tokatzen zaionari sorbaldan jarriko zaio (beno, aretoan bero egiten badu, hobe du belauenen gainean jartzea) eta, aldi berean, bi gauza kontatuko dizkie besteei:

- **Mantatxo baten beroa sentitu nuen azken aldian ... nengoen**
- **Mantatxoa behar izan nuen ... (zergatik) eta ... (nork) jarri zidan.**
- **Nik uste dut besteentzat mantatxoa naizela ... (noiz).**

Esaldi osatugabeekin partekatzen ditugun ekarpen guztiak pos-it edo txarteletan idatziko ditugu. Interbentzioen amaieran, mantan itsats ditzakegu orratzekin, eta denbora batez, edo gure erretiroan edo bileran, agerian utzi, manta-pertsonak eta manta-komunitateak izateak besteentzat zenbateko garrantzia duen gogorarazteko.

ETA AMAITZEKO...

Eta jardueraren ondoren, Roberto Carlosen abesti bat (ez oso ezaguna) entzutea gomendatzen dizuet, "Nossa Senhora" izenekoa, eta baita "Cúbreme con tu Manto de Amor" (Estal nazazu zure maitasun-mantuarekin) ere, Mariaren, gure Ama babeslearen mantuaz hitz egiten diguna. Izan ere, mantu babesleak zentzu eta sinbologia handia du Mariaren irudian, eta oso presente dago Andre Mariaren otoitz askotan.



PROZESU
PEDAGOGIKOA:
**KONPROMISOA
HEZI**

Zerbitzurako
bokaziotik
herritartasun
globalera pasatzea.

5 BAZATOZ?

JARDUERAK

BAZATOZ?

Samariar ona ez zen zauritutako eta erasotako gizonaren bizia salbatzearekin bakarrik konformatu, baizik eta pentsatu zuen zerbait gehiago egin behar zuela, bere laguntza denboran iraunkorra izan zedin bermatu behar zuela, eta berekin eramatea erabaki zuen. Aztarna horrek bereizten ditu, adibidez, “boluntariotza egitea” edo “boluntario izatea”, “laguntza puntuala” edo “laguntza iraunkorra”, “eskola ematea” edo “hezitzailea izatea”: zerbitzurako bokazioa da.

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Geure buruarekin eta besteekin dugun konpromisoaren loturak eta blokeoak identifikatzen, hausnartzen eta haietatik askatzen ikastea, eta, oro har, mundu bidezkoagoa, solidarioagoa eta ekologikoagoa eraikitzen ikastea.
- Askatasunari eta erantzukizunari buruz hausnartzea, bizitzan erabaki jakintsuak eta seguruak hartzeko gure bi hegoak balira bezala, hegorik gabe ezin baita hegan egin, edo bizikletaren bi pedalak balira bezala, haiek gabe ezin baita aurrera egin.
- Norberaren bokazioaz jabetzea, benetan gustuko dugun hori identifikatuz, gure bizitzaren zentzuarekin lotuz, munduan utzi nahi dugun arrastoa identifikatuz, eta irakurketa humanista, kristau eta zerbitzuko eginez.
- Giza balioek eta eskubideek, bizi-historiek eta kausa justu eta solidarioari emandako lanbideek orientatutako bokazio profesionalen testigantzak aurkitzea eta haietan inspiratzea.

BAZATOZ?



IKASKUNTZA- HELBURUAK

Norberaren bokazioaz jabetzea, benetan gustuko dugun hori identifikatuz, gure bizitzaren zentzuarekin lotuz, munduan utzi nahi dugun arrastoa identifikatuz, eta irakurketa humanista, kristau eta zerbitzuko eginez.

Parte-hartzaileen adin-tartea

BIGARREN HEZKUNTZATIK AURRERA



Zer aztarna utzi nahi duzu?

Zer aztarna utzi nahi duzu?

SARRERA:

Gure bizitzako uneren batean sortzen da munduan, besteengan eta abarretan "aztarna uzteko" guztiok dugun desio hori. Horretan guztian datza gure bizi-helburua eta gure bizitzaren zentzua.

DINAMIKA:

Dinamika honetan gure oinaren aztarna inprimatuko dugu kartoi mehe batean, orri handi batean edo paper jarraituan, hatz-pintura erabiliz. Horretarako, oinutsik egingo dugu. Hatz-pinturarik ez badugu, errotuladore batez marraztu dezakegu gure oinaren silueta. Oinetakoak erantzi eta hatz-pintura erabiltzea ezinezkoa dela ikusten badugu taldeko edo gelako jardueran, eska dezakegu parte-hartzaile bakoitzak etxetik orri batean inprimatua ekartzeko bere aztarna.

Bakoitzak aukeratuko du bere aztarnaren kolorea, utzi nahi duen aztarna-motaren arabera: hainbat koloretako hatz-pintura sorta izango dugu, aukeratu ahal izateko.

Arrasto guztiak prest ditugunean, bakoitzak berea jarriko du leku edo horma-irudi partekatuan, eta izen batekin etiketatuko du: maitasunaren aztarna, aztarna ekologikoa, familiaren aztarna, etab. Bakoitzak munduan utzi nahi duen aztarna-motaren arabera jarriko dio izena bere aztarnari.

Azkenean, guztiok partekatuko ditugu gure aztarnak, eta balioetsiko dugu aztarna horiek elkarren artean zer antza duten balioei, bizitzaren zentzuari eta helburu pertsonalari dagokienez. Era berean, baloratu dezakegu eguneroko bizitzan egiten duguna, gure bizimodua, zer neurritan datorren bat utzi nahi den aztarna horrekin.

Jarduerari buruz egingo dugun gogoeta partekatuan, garrantzitsua da bereiztea aztarna kuantitatiboa (aztarnaren zabaltasuna) eta aztarna kualitatiboa (aztarnaren sakontasuna). Horren harira, kontua ez da munduan aztarna oso handia uztea (politikari eta boteretsu batzuek egin nahi duten bezala), baizik eta aztarna benetan ona eta sakona, harrian inprimatua, uztea, hori baita irauten duena eta datozen belaunaldiei lagunduko diena.

ETA AMAITZEKO...

Gaur egun, arrasto batzuk funtsezkoak dira, eta dinamika horren haritik aipa ditzakegu: aztarna ekologikoa, sare sozialetako aztarna digitala, mundu global bateko aztarna soziala. Horiek guztiak, nolabait, geure luzapen eta islak dira, denboran zehar gutxi gorabehera iraungo dutenak. Komeni da gogoratzea dinosauroen aztarnak harrian inprimatuta geratu zirela; horregatik, gaur egun asko dakigu haiei buruz.

BAZATOZ?

IKASKUNTZA-
HELBURUAK

Geure buruarekin eta besteekin dugun konpromisoaren loturak eta blokeoak identifikatzen, hausnartzen eta haietatik askatzen ikastea, eta, oro har, mundu bidezkoagoa, solidarioagoa eta ekologikoagoa eraikitzen ikastea.

Parte-hartzaileen adin-tartea

BIGARREN HEZKUNTZATIK
AURRERA

Bizitzako lasterketak

Bizitzako lasterketak

SARRERA:

Lasterketa bat bezalakoa da bizitza: egun batean irten eta noranzko edo misio batekin lotutako helburu baterantz abiatzen zara. Lasterketaz ari garenean, erabaki bati, erronka bati, lortu nahi dugun zerbaiti, bete beharreko helburu garrantzitsu bati, aldatu beharreko ohitura bati eta abarri buruz ari gara.

Ikus ditzagun, bada, guztiok noizbait bizi izan ditugun edo noizbait biziko ditugun lau lasterketa-mota, gero hausnarketarako baliagarri izango zaizkigunak:

1. Egitea gustatuko litzaiukeen lasterketak, baina inoiz hasi ez ditugunak, ez garelako irteera-lerroan jartzen, edo jarri egiten gara, baina “katigatuta” geratzen garelako irten gabe. Komeni da aztertzea zer gauzek eragozten diguten irtetea, zergatik ez dugun hasierako bulkada hori, lasterketa hori egiteko eta helmugara iristeko gogo edo grina hori.

2. Hasi ditugun lasterketak, baina helmugara iritsi aurretik utzi ditugunak, nekeagatik, motibazio faltagatik edo lasterketa asko hasiak edukitzeagatik. Esperientziak esaten duenez, lasterketa gehienak hasieran uzten dira. Motibazioa funtsezkoa da, eta kirolari handiek bezala egin beharko genuke: helmugako marra gurutzatzen ikusi geure burua, arrakasta edo lorpena dastatzen ikusi etorkizunean. Bistaratze-ariketa horrek, ondo egiten badugu, etorkizunaren oroitzapen gisa jarduten du, gugandik aurrerantz tiratzen duena, helbururantz erakartzen gaituena.

3. Hasi ditugun eta gaur egun egiten ari garen lasterketak. Kasu honetan, komeni da zerrenda batean jasotzea zenbat lasterketa ditugun hasiak, lehenago amaitu behar direnak lehenesteko, eta komeni da, halaber, balio garrantzitsuek bultzatuta korritzen ari garen aztertzea.

4. Arrakastaz amaitu ditugun lasterketak. Horiek dira gehien hazi gaituztenak, eta beste lasterketa batzuk egitera animatzen gaituztenak. Arrakasta-esperientzia, lortutakoaz gozatzea, “ahal dela” gogoratzea, horiek dira gure motibaziorako, ahaleginerako eta jarraitzeko erregaia, proposatzen dugun guztia lortu ahal izateko.

DINAMIKA:

Marraztu dezagun lurrean, pintore edo karrozeroaren zinta itsasgarriarekin, lasterketa-lerro edo -kale bat: mutur batean “irteera” jarriko dugu, eta bestean “helmuga”.

Orain, parte-hartzaileei eskatuko diegu ohar itsaskorretan idatzi eta lasterketa-kalean jartzeko beren bizitzako “lasterketa” edo esparru batzuetan izandako esperientzia pertsonalak, aipatu ditudan 4 puntu horiei buruzkoak. Gure lasterketa kolektiboa edo maratonia talde gisa ere koka genezake: argi al dugu helburua? Tratatuta al gaude? Lasterketa egiteko abiadura desberdinak al daude? Oso azkar al goaz, edo agian oso motel?

ETA AMAITZEKO...

Bukatzeko, “Jesusen lasterketez”, haren ibilbideez, hitz egin dezakegu, iraupen-lasterkaria, abiadura-lasterkaria edo garaiko oztopo-lasterkaria ote zen. Halaber, gure erromesen bizitzarekin pareka dezakegu lasterketa, ezustekorako eta lasterketa eta konpromiso berriak hasteko prest egotearekin.



PROZESU
PEDAGOGIKOA:
**KOMUNITATEA
HEZI**

Elkartasun
antolatutik justizia
unibertsalera
jauzi egiten duen
komunitatea.

JARDUERA

HANDITU ZURE KUADRILLA

Historiako lehen GKEa sortu zuen Samariar onak, ostalaria tartean sartu baitzuen eta lehen elkartasun-sarea sortu baitzuen, eta, gainera, bera arduratu zen laguntza finantzatzeaz: “alde egitean bi denario atera zituen...”. Zerbitzu prosoziala sarean eratu behar da, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekin (ikasleak, irakasleak, familiak, etab.).

IKASKUNTZA-HELBURUAK

- Beste kaltebera, arbuiatu eta baztertuekiko abegiak eta harrerak duen balioaz ohartzea, etxetik urrun daudenen beharrei erantzuteko gaitasun gisa.
- Lankidetzan aritzen eta taldean lan egiten ikastea funtsezko tresna gisa laguntza- eta komunitate-sare egonkorak, antolatuak, eraginkorrak eta denboran iraunkorrak sortzeko, bai eta misio partekatuen inguruko sentimendu kolektiboa sortzeko ere.
- Norberaren trebetasunak, talentuak eta baliabideak komunitatearen eta misio partekatuko proiektuen zerbitzura jartzea, guztien onerako, justizia sozialerako eta bizimodu egokirako.
- Pobreekin lan egitea pobreziaaren aurka, pertsona eta komunitate kalteberen eta baztertuen autogarapena eta ahalduntzea errespetatuz eta lagunduz, eraldaketa sozialerako eta justizia unibertsalerako eragile gisa.



IKASKUNTZA- HELBURUAK

Norberaren trebetasunak, talentuak eta baliabideak komunitatearen eta misio partekatuko proiektuen zerbitzura jartzea, guztien onerako, justizia sozialerako eta bizimodu egokirako.

Parte-hartzaileen adin-tartea

LEHEN HEZKUNTZATIK AURRERA



HANDITU ZURE KUADRILLA

Zerbitzuaren erretilua

SARRERA:

Besteei zerbitzua ematea da gure nortasun pertsonalaren eta sozialaren oinarrietako bat: edozein rol sozial edo profesional bidera daiteke besteekiko zerbitzuaren edo interes partikularrekiko zerbitzuaren ikuspegitik.

DINAMIKA:

Dinamika hau egiteko zerbitzatzeko erretilu biribil bat behar dugu (zerbitzariak eramaten dutenaren modukoa), besteen zerbitzura egotea sinbolizatuko duena, besteen zerbitzura jartzea, gure ezaugarriak eta talentuak beste batzuentzat erretiluan jartzea.

Hasiera batean, oraindik egin ez badugu geure burua aurkezteko erabil dezakegu, edo bestela aurkezteko. Formula hau erabiliko dugu erretilua elkarri pasatzen diogun bitartean: "... dut izena eta ... balio dut". Hori esatearekin batera, aldeaz aurretik txartel batean idatzita ere eduki dezakegu eta txartelak zerbitzuaren erretiluan utzi. Gure talentuek, dohainek eta nolakotasunek besteen zerbitzura jartzen direnean dute zentzua eta balioa, eta ez bakarrik norberaren zerbitzura jartzen direnean. Garrantzitsua da hiru galdera planteatzea zerbitzuaren erretilutik:

- **Zertarako zerbitzatu behar dugu?** Zerbitzu orok du bere helburua edo xedea, eta garrantzitsua da hori identifikatzea. Misio eta balio batzuekin lotua egon behar du zerbitzuak.
- **Nor zerbitzatzeko behar du?** Garrantzitsua da noren zerbitzura gauden argitzea, ez baita gauza bera boteretsuen zerbitzura egotea edo behartsuenen zerbitzura egotea.
- **Nola zerbitzatzeko behar dugu?** Zerbitzari onak bezeroei adi egoten dira, arinak dira, atseginak, zure beharrak lehenago entzuten dituzte, taldean lan egiten dute. Garrantzitsua da, halaber, hemen galderari buelta emateko aprobetxatzea: nola tratatzen ditugu zerbitzatzeko gaituztenak?

ETA AMAITZEKO...

Bukatzeko, bi orientabide praktiko, zerbitzuaren balioa gure bizitzetan nola aplikatu jakiteko:

1. Pentsatu zein diren zure bizitzan betetzen dituzun rol edo funtzio nagusiak (lana, lagunak, familia, kirol-taldea, taldea, komunitatea...), eta saiatu aurreko hiru galderari buruz hausnartzen: rol zehatz bakoitzean, zertarako balio dut?, nor zerbitzatzeko dut?, nola zerbitzatzeko dut?
2. Egin ezazu "zerbitzu-lidergoa" zure inguruan, eta ikusiko duzu nola kutsatzen den azkar: lider onak ez dira beste batzuek baliatzen direnak edo beste batzuek lan eginarazten dietenak, baizik eta, beren eguneroko ereduarekin eta testigantzarekin egunero beren talentuak eta ezaugarriak "besteentzat eta besteekin" jartzen dituztenak.



IKASKUNTZA- HELBURUAK

Lankidetzan aritzen eta taldean lan egiten ikastea funtsezko tresna gisa laguntza- eta komunitate sare egonkorrak, antolatuak, eraginkorrak eta denboran iraunkorrak sortzeko, bai eta misio partekatuen inguruko sentimendu kolektiboa sortzeko ere.

Parte-hartzaileen adin-tartea

BIGARREN HEZKUNTZATIK AURRERA



HANDITU ZURE KUADRILLA

Gure misioa pizten

SARRERA:

Sugarra, kriseilua, argia... behin eta berriz errepikatzen den sinboloa da kultura erlijioso eta profano guztien narratibetan, poeta mistikoen idazkietan (Joan Gurutzekoaren "Maitasun-gar bizia", adibidez), baita gure bizitzetako herri-kulturan ere. Maitasunaren garraz ari gara, itxaropenaren garraz, egun batean zerbait garrantzitsua piztu zuen garrari bizirik eusteaz, garra itzaltzen ez uzteaz eta abarrez. Gure bizitzako une garrantzitsuetan, urtebetetzeetan adibidez, kandelak pizten ditugu pozaren seinale. Tradizio oso zaharretatik dator hori guztia.

DINAMIKA:

Pertsona-talde batentzat garrantzitsua den proiektu edo misio baten garra piztea da dinamika. Hori egiteko modua izango da gar horren marrazki-silueta berrak betetzea. Kandela edo lanpara baten marrazkiarekin lotuta egon daiteke, nahi dugun bezala, pos-it (ohar itsaskorrak) horietan idatzitako hitzekin, lanpararen argia esaterako, gar hori bizirik manten dadin egiteko prest gauden guztia irudikatzeak.

Kandelaren edo lanpararen gorputzean gudan eta gugandik besteengana distira egitea nahi dugun proiektu edo asmo partekatu horren izena idatziko dugu.

Helburua da ohar itsaskorren horiko sugar koloreztatuaren silueta osoa agerian geratzea, eta, era berean, gure konpromisoak idatzita edukitzea, kandela edo lanpara partekatu horri bizia eta argia emango dioten portaera eta jarrera gisa.

Sugarra pizten den uneari nolabaiteko erritu- eta ospakizun-izaera emango diogu, urtebetetze bat edo ekitaldi garrantzitsu bat ospatzen dugunean bezala; sinboloak indarra eta eraginkortasuna izatea nahi badugu, xehetasun horiek ere zaindu behar ditugu, garrantzitsuak baitira. Azkenik, ageriko leku batean utziko dugu, proiektu osoan zehar argia egin diezagun.

ZORIONAK!

Gizakiaren altxorraren mapa osatu duzu.
Orain tresna gehiago dituzu benetako
biderako, hau da, komunitate-zentzua
duen bizitzarako.

Eta gogoratu,

**“Egunero samariar
onak edo bidaiari
axolagabeak izateko
aukera dugu”**

Frantzisko Aita Santua

943 44 07 44

idazkari@caritasgi.org

